

# 100 zenbaki eta hamaika ardatz: Psikologiaren ekarpena gizarte-eraikuntzarako

Fernando Trebol Unzue

Psikologian doktorea, Zahartze Prozesuan eta Hezkuntzan aditua  
Nafarroako UEUKidea

Zangozako Ikastolako Hezkuntza Bereziko irakaslea

Nafarroako Unibertsitate Pubilkoko Psikologia eta Pedagogia Saileko irakasle laguna

Psikologia eta haren **ekarpen, inplikazio, hezkuntza-** eta **gizarte-gaietarako** ildoa emateko asmoa bildu nahi du idatzi honek. **Etorkizuneko Euskal Herriaren oinarriak ildoari erantzun nahian** egin da. Psikologiak egin dezakeen ekarpenari begira, hainbat ildo jorratu izan dira UZTAROn, **100 zenbakitan**, eta **11 ardatz** izan dira, eta horri begira, etorkizuneko Euskal Herriaren egituratzerako behar diren **oinarriak diseinatu behar ditu Udako Euskal Unibertsitatea bezalako erakunde batek**. Oinarriak bai, baina ardatz batzuk dituela. Horiek ez dira bakarrik islatu behar bere baitan jorratu diren gai, ibilbide, edo bestelako idatzi akademikoetan, **zeharkako lerro bati begiratu behar zaio**, eta gizarte-erakundea den aldetik, **UEUren zeregina herriaren ardatza sustatzea da**.



Aurreko urtean utzi gintuen Eugenio Arraizak, UEUKide eta Nafarroako euskalgintzan eragile eta ardatz-egile esan genezake, eta haren ekimen eta antzeko jarduerak bere horretan darraite. Haren ekarpenetako bat *Euskal Herria Ardatz* argitalpenean dugu eredu. Nafarroatik errotutako lana, etorkizunari oinarriak jartzeko abiapuntua du, egungo bizilagunen beharrak eta herri txikien inplikazio aktiboa beharko ditu, hiritarrei bizi- eta hezi-bideetan.

UEUren eginkizunean, eta Euskal Unibertsitate oso bat sorrarazteko lanetan, ahalegin ugari izan dira eta izango dira, horregatik, horretan zeresana du Psikologiak eta ekarpen, inplikazio ugari eta hezkuntza-zereginak errotzat hartuko ditu. UZTARO

da UEUren erakusleio fina, ziorra eta etengabeko lan-ttanttak biltzen dituen, bakarra Euskal Herrian, eta ikertzeko ildoak jarri baditu, egiten dena ikertzeko bidea emango du ere. Gure aldizkari honek ez du ahaztu behar gizarte-egituratze horretan ibilbidea markatzea duela helburu nagusi, eta, horretarako, jakintza-arlo guztietan zeregin amankomun bat bilatu eta ezagutzera emateko, erakusleio paregabea dugu UZTARO.

**Ehun zenbaki eta hamaika ardatz**<sup>1</sup> dira herri-eraikuntzarako behar den AUZOLANA (herri-lana), ez da militantziatzeko hornidura soil batetik jorratzen, beste zerbait behar da, kalitatezko hezkuntza-sistema baten gailurra eraikitzeaz ari gara. UZTAROn erronka izan ahal da, eta leloa ere. Hemendik aurrera izango dugun ibilbideari ekiteko, egiten den horrek bidea aukeratzeko argigarria izan behar du, eta mende berriaren OINARRIAK jartzeko belaunaldiak garena argi izan behar dugula azpimarratu beharra dago. Agian ez dugu izango egiten dugunaren bizipena, baina irmoki lan egin behar dugu etorkizuneko Euskal Herria egingarria izateko; gure ikuspena behar du izan.

Horregatik guztiagatik, UEUK ibilbide bat abiatu du, eta horretan aipa daiteke **Euskal Estatuari bidea zabaltzen** hiru liburuxkek osatzen dutena<sup>2</sup>. Azterlan horretan jasotako ekarpen teorikoak interesgarriak bezain baliagarriak izango dira Euskal Estatuaren aldeko aldarrikapena edukiz hornitzeko, eta lagungarriak, halaber, horrelako apustu bat bideratzeko beharrezkoa den oinarri material eta ideologikoa lantzeko. Liburu-bilduma horretan agerian geratzen da Estatu delat alternatibarik onena Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiontzat, eta Euskal Herriak badituela oinarritzeko potentzialtasunak, gaur eta orain, europar Estatuaren multzoan Estatu berri bat eraikitzeko (<<http://www.ueu.eus/denda>> 2016-12-08).

Estatu bat bai, eta haren herriak ere, batez ere herri txikiak. Haren potentzialtasun horiek pertsonak dira, bizilagunak, kideak. Herri txiki horiek badira, batzuetan, lurralde zabalen jabe eta kudeaketaren egitura, antolaketa eta bizimodu berriak sortzen ari direnak. Gipuzkoako Zerain dugu eredu, bere bizimodua laborategi bihurtu dute bertakoek. Politikariak, adituak eta, batez ere, herrietako bizilagunak bildu dituzte Zerain Lab eta Eusko Ikaskuntzak antolatutako Etorkizuneko Herri Txikien Nazioarteko Kongresuan<sup>3</sup>. Herri txikiak badute, izan dutelako, abiapuntuaren eta ardatzaren motorra izateko ezaugarria, eta UEUK hor egon beharko du, ezinbestekoa baitu, eta Gizarte Psikologiaren azterketan hain zuzen ere, lan egiteko parada. Bertan Antropologian adituak izan ziren. UEUren arima hor egon zen ere.

---

1. UZTAROn erronka izan ahal da eta leloa ere, hemendik aurrera izango dugun ibilbideari ekiteko, bidearen argigarria izan behar du, eta egun hauetan eta mende berriaren OINARRIAK jartzeko belaunaldiak garena argi izan behar dugu, agian ez dugu izango egiten dugunaren bizipena, baina irmoki lan egin behar dugu etorkizuneko Euskal Herria egingarria izateko.

2. UEUren argitalpena da: <[http://www.ueu.eus/denda/ikusi/euskal\\_estuari\\_bidea\\_zabaltzen\\_\\_lurraldea\\_eta\\_sozioekonomia](http://www.ueu.eus/denda/ikusi/euskal_estuari_bidea_zabaltzen__lurraldea_eta_sozioekonomia)> (2016-12-08).

3. Zeraingo herrian sortu den Zerain Lab eta Eusko Ikaskuntzak antolatutako Nazioarteko Kongresua: <<http://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/gertakariak/etorkizuneko-herri-txikiak-nazioarteko-kongresua/gd-44/>> (2016-12-08).

## **ZERAINGO ADIERAZPENA:**

*Etorkizuneko herri txikiak* izenburupean Zerainen 2016ko azaroaren 17tik 19ra bitartean egin den nazioarteko kongresuaren amaieran, antolatzaile eta sustatzaileok, publikoki honakoa adierazi nahi dugu:

Herri txikiak beharrezkoak dira eta etorkizuna dute Euskal Herrian.

Herri txikietako jendeak etorkizuna gure esku dugu eta gure esku hartu nahi dugu. Gure geroaren protagonista izan nahi dugu eta izan behar dugu, gure etorkizunean sinesten dugulako. Tokian-tokian, leku bakoitzean, guk erantzun nahi diegu gure esku dauden beharraznei.

Herri txiki biziak nahi ditugu. Biziak eta bizitzeko modukoak. Guk ere bizi eta ongi bizi nahi dugulako. Sinesten dugu herri-bizitza duten herrietan; lanbidea, ogibidea izateko aukerak sortzen dituztenetan; naturarekin errespetuan bizi diren herrietan; eta hori guztia bultzatzen duten komunitate kohesionatuetan.

Ez dugu lo-leku idilikorik nahi. Ez dugu postaletako argazki hutsik nahi. Ez dugu arimarik eta bihotzik gabeko herririk nahi. Pertsonen bizi-leku biziak nahi ditugu.

Landa-inguruneko herriak gara. Landa ingurunean mendeetan zehar sortu eta garatutako jakintza, kultura, balio eta tradizioak etorkizunerako oinarri ditugu. Ezin dugu herri txikien etorkizunik eduki lehen sektorerik gabe, gure baserri, abeltzain, artzain, nekazari eta laboraririk gabe. Herri txikien etorkizuna nahitaez laborarien etorkizunari lotuta dago, eta beraz, lehen sektorea sustatu behar dugu.

Landa eremuko herri txikiak gure kulturaren, nortasunaren, izaeraren eta hizkuntzaren iturburu eta zaintzaile dira. Euskararen arnagune nagusiak herri txikietan ditugu, eta horregatik gure hizkuntzaren etorkizunerako ere beharrezkoa dugu herri txikien garapena.

Herri txikiei buruzko topikoak eta iruditegi faltuak hautsi nahi ditugu. Hiriarekin dugun harremana birpentsatu beharra daukagu. Ekar gehiago ezagutu beharra dugu, elkarri zer eskaintzen diogun ezagutu eta baloratu. Lurralde eta gizarte bereko kideak gara eta elkarren beharra daukagu, baina harreman orekatua behar dugu. Gure herriaren etorkizun hoberako, kultura urbanoaren eta landa eremuko kulturaren arteko elkarbizitza orekatua behar ditugu.

Herri txikiok elkarrekin lan egin behar dugu, txikiak gara eta asko dugu elkarrengandik ikasteko eta elkarrekin partekatzeke. Kontzientzia kolektiboa hartu, landu eta indartu behar dugu herri txikien etorkizuna hobetzeko eta gizarteko gainontzeko kide, eragile, talde eta erakundeekin erlazionatzeko.

Etengabe eta oso azkar aldatzen doan mundu eta gizarte globalizatuan, herri txikiok ere etengabe gure burua egokitu beharra dugu. Etorkizun ona izan dezagun etengabeko berrikuntza eta ikerketa bultzatu nahi ditugu, landa eremuko komunitateek beharrezko ditugun arlo guztietan: gobernantza sistema berrietan, kulturaren garatzean, ekonomia berrietako aukeretan, ekologian eta abarretan.

Herri txikiok bizirik gaude. Herri txikiok esna gaude. Herri txikiok elkarrekin lanean ari gara etorkizuna lantzen. Lehen bezala orain, eta orain bezala gero, herri txikietako jendeak ere, ondo bizi nahi dugulako.

Zerainen, 2016ko azaroaren 19an.

Gizarte-eredu berri bat eraikitzea ezinbestekoa da, oinarrietara jo behar dela argi dago, horretan beti pertsonak izango gara; horregatik, ereite-lan horretan kimu berriak sortzen lagundu behar du UZTAROK, uztaren jasangarritasuna eta solidaritatea aldarrikatzeko, erreferentzia delako.

Askotariko bilduma egin da urte luze hauetan, urte asko, baina Euskal Unibertsitate batentzat hasierako abiapuntua. UEUren baitako datu-bilduman, Buruxkak, liburutegi digitalean 120 argitalpen dira Psikologiari lotzen zaizkionak, bestetik, UZTARO aldizkarian 100etik gorako artikulu jaso ditugu. Horien artean hainbat gai, tesien edukiak, gizakien jokaera eta jokabidea, jarrera eta talentuak aztertu dira. Horiek biltzeko lana UEUren zeregina izan da, da eta izan behar du. Denetan egungo gertaerei erantzun nahian, etorkizunari begirako proposamenekin... Hezkuntza-gaiak ugari dira, eta Psikologiarekin lotzen direnak ere. Unibertsitateko irakasle baten diskurtsoaren estrategia eta jarrera komunikatiboak nolako izan behar duen Amaia Quintana Ordokia-k azaldu zuen bere artikuluan, eta bere laburpenean oinarri bat ematen digu: «Irakaslegoak darabilten estrategia diskurtsoak identifikatuz eta ikasgelan estrategia komunikatiboekin batera sustatzen diren jarrera komunikatiboek nolako giroa sortzen duten», eta hori aztertu da; betiere heziketarako hezitzaile-eredua definitu beharko delako ere.

Pertsonak dira helburu, bizimoduak, bizi-estiloak, eta horiek zorientasunez bizitzeko ildoak ere martxan jarri behar dira. Ardatz oso eta bete bat izan behar du, eta horretan Psikologiak badu zer esana. «Genero-berdintasunean hezteko gida» eta «Hezkuntza sozioemotionala eta ikaskuntza-zailtasunak» proposatzen dizkigu Luixa Reizabalek, «Emozioak eta gaitasun sozioemotionalak» Aitor Arizetak eta Goretti Soroak. Hezkuntzaren aniztasuna *Hezkuntza Bereziaren Oinarri Psikologikoak. Aniztasunari arreta* argitalpenean jorratzen da ere. Baina adin-tarte guztiak behar dira landu, *Garapen psikologikoa helduaroan eta zahartzaroan* liburuan, Izarne Lizasok, birritan jorratu den gaia da, etorkizun hurbilerako dugun erronka berriaren atarian jartzen gaitu.

Horri lotuta badugu **Euskadi Lagunkoiaren** aipamena egitea, Osasunaren Mundu Elkarteak bultzatzen duen «**Adinekoekin Lagunkoia** **diren Hiri eta Komunitatea**<sup>4</sup>» egitasmoa da, eta udalak antolatzeke zeharkako kudeaketa bideratzen du zortzi esparrutan: espazioa, ingurunea eta eraikinak; garraioa; etxebizitza; errespetua eta gizarte-inklusibitatea; gizarte parte-hartzailea; komunikazioa eta informazioa; lanbidea eta gizarte parte-hartzea, eta, azkenik, gizarte- eta osasun-zerbitzuak. Horietan zer eta nola kudeatuko den, zenbat diru esleituko den eta abar, beste modu batean egitea dago. Zeharkako irakurketan landu behar dela proposatzen digu. Horri lotzen badiogu Eudal Carbonell-ek argitara eman zuena, *El nacimiento de una nueva conciencia* liburuko ekarpena jasotzea dugu. Ikertzaile horrek Atapuercako indusketetan lan egin ondoren eta behaketaren ondorioz dioenez, baita ekologiaren krisiak eraginda ere, baliabideen banaketa desorekatuagatik eta beste eragile batzuen parte-hartzeagatik, agian «espeziaren estualdi bat» sortuko da, baldin eta gizakiak gogoeta egiten ez badu eta aldaketaren aldeko apustu irmoa hartzen ez badu. Baikor agertzen da, gizakiarengan itxaropenak jartzen dituelako.

4. Zer da Euskadi Lagunkoia?: <<http://www.euskadilagunkoia.net/eu/euskadi-lagunkoia-eu/zer-da-euskadi-lagunkoia>> (2016-12-08).

Egile horrek bere liburu-bilduman aipatzen du Eudal Carbonell-en ustea, zeinak «gizakia kontraesan handi bat» sortu duela baitio, «primateen gorputzak eta garunak ia ez dute erlaziorik gaurko aurrerapen zientifiko eta teknologikoekin», baliabide eta teknologian garatu gara, baina oraindik ez dugu bere osotasunean lortu gizaki izatea, «humano» bezala ulertuta. Teknika-teknologia-zientiak eta gizarteratzeak espezie berri baterantz eramango gaituela aipatzen du, eta gure egin dezakegu premisa hori UEUren baitan, ezinbestekoa baitugu gure giza antolaketaren eredu berrietara so egitea, behatuz bideak norantz garamatzan eta oinarriak ezar ditzagun.

Orain artekoa ez da bereizle edo egokia izango, eta indar berri batekin azaleratuko da; giza ezaugarria aldatuko da, eta errealitate zehatz batera egokitzeko eta moldatzeko beharrezkoa den estadio bat bezala ikusi beharko dugu. Horretan, berriz ere, Psikologiak paradigma berria definitu beharko du, Euskal Herrian, UEU izan dadila bere herriaren oinarrietan lan egingo duena, buru eta gogamenaren paradigma zein den ikertuz eta izango dena jorratuz.

Adinekoen gizarte batean murgilduta gaude, datozen urteetarako jaiotzak % 20 jaitsiko direla aurreikusten da EAEn; eta Nafarroan eta Iparraldean bide bertsutik goaz. Hainbat zonatan ehuneko hori gaingitu delarik, horretan zeregin asko badago. Ikerketa-lerro bat izan behar du, familientzako kontziliazioa eta familiei herrietan bizitzeko aukerak eman beharko zaizkie, betiere ikerketa-lerro argi bat dugula, sustatu behar den gizarte eutsigarri bat behar da ere Euskal Herriaren eraikitze horretan, beraz, herri txikiak eskola txikiak gure habiaren ardatz izango dira. Zerainen lehen harria jarri da eta Udako Euskal Unibertsitateak egingo den lan hori ikertu eta lorpenen zabalkundearen UZTAROk egon behar du.

Gizarte batek izango dituen aldaketei erreparatu behar die UEUk, eta, horretan, bere heziketaren ibilbidean, Unibertsitateak badu erronka bat, **ehun zenbaki eta hamaika ardatz** aukeratu, hornitu eta bideratzaile izango diren adituak hezteko. UEU izan dadila Unibertsitate hori. Generoa eta emakumea, generoa eta etorkinak... Emakumea gizarte-sustatzaile bezala eta, iraganean etxeko gidaria izan zen bezala, gizartearen «amatasuna» aldarrikatu da UZTAROn hainbat artikulutan, baina baita Manuel Norberto Sanchez eta Izarne Lizasok aldarrian jarri duten «Adineko emakumeak: zenbait ekarpen lan-mundura sartzearen eta erretiroa hartzearen inguruan» artikuluan aipatzen diren kontzeptuak kontuan ditugularik ere:

Adineko emakume langileen eta adineko emakume erretiratuen egungo datu estatistikoak aztertu dira artikuluko honetan. Hain zuzen ere, emakumezkoak egun gizonezkoen enplegu-tasara hurbiltzen ari dira. Hala ere, hainbat arrazoi direla medio, 55 urtetik gorako emakumezkoen enplegutasa baxuagoa da gizonezkoen aldean. Hori dela-eta, emakumezkoen erretiroaren ezaugarriak eta ondorioak gizonezkoen ikuspegitik ikertu izan dira. Egungo gizartean gertatzen ari diren aldaketen ondorioz, gero eta emakume gehiagok lan-merkatuan parte hartuko dutela espero izanik, **gure proposamena da egungo adineko emakume langileei eta emakume erretiratuei buruzko azken datu estatistikoak deskribatzea**, etorkizun hurbilean adineko emakume langileen eta adineko emakume erretiratuen **egoera bere osotasunean ikertu ahal izateko**.

Beraz, eta haurtzarotik hasi, genero-berdintasunarekin tematuz, adinekoen egoera, garapena eta ikertu beharrekoa UZTAROk zehaztu egin du. Emozioak, sexualitatea, elkarbizitzarako ildoak azpimarratu ditu. Teknologia berriak eta Internetetik datorkiguna ulertzeko aukera eskaini da, eguneroko egoerek sorrarazten dutenari Psikologiak eskaintzen dizkion estrategiak, ikaskuntza eta hizkuntzarekin dituen harremanak aztertu dira ere; alternatibak eta abordatze-lanak bizkarrezur argi eta garbi bat jartzen lagundu dute. UZTARO izan da protagonista, bildu duena eta orain ospatzen duena. Aipagarria egiten da haur eta nerabeek identitate nazionala garatuko dutela aipatzen denean, unibertsitatera iritsiko direla eta Euskal Herriko garaikideak izango direla.

Gainera, UZTAROk primateen balorazio akademikoa jaso du ere, aurreko lerroetan aipatu den bezala, oraindik ez gara primate izate horretatik ateratzen, eta gizaki izateko lanak egiteko ditugu. Hemen eta han dauden «Gatazken konponketa gizaketan eta beste primateetan» ikertu ditugu, eta horretan, oinarria idatzia badugu beraz.

Eluska Aizpuruak bere artikuluan dioenez, animalien jokaera erasokorrari buruz asko ikertu den arren, agresioaren ondorio ezkorrak gutxitzeko edota ekiditeko garatu dituzten baketze-mekanismoen inguruko datuak urriak dira. Egile horrek, bere lanean, agresio mota ezberdinen sailkapena egiten du eta ondoren primateek erabiltzen dituzten hainbat baketze-mekaniskoren definizioa eta adibideak aurkezten ditu. Gure herrian ederki kokatzen den gai honi Psikologiak egin dituen ikerketetan erantzuna ematen zaio. UZTAROk jasoa du eta gizakien enpatia neurtzeko erabiltzen diren tresnak aztertu eta sexu arteko ezberdintasun horiek azaltzen dituzten arrazoi posibleak proposatzen dizkigu. Errekonziliazioa, bitartekaritza, kontsolazioa, sexuen araberako ezberdintasunak eta enpatia, eta zergati posibleak aipatzen ditu ere.

Horrekin loturik, Zah-Waxler eta lankideek 1993an gizakiekin egindako ikerketan adierazten dutenez, enpatiarako gaitasun hori emeek geroago beteko duten zaintzaile-funtziorako prestatuko litzuzkeen eta oinarri biologikoa lukeen aurredisposizio baten adierazlea litzateke. Beste ikerketa batean Waal eta Aurelik 1997an, txinpantzeekin egindako ikerketa batean, animalia horien eboluzioan zehar besteengan herstura-sentimenduak gutxitzeko garatu dituzten jokaera-patroi zehatz horiek, ziurrenik, amek euren kumeak lasaitzeko agertzen dituztenetatik eratorriak direla.

Honekin guztiarekin eta UZTAROk Euskal Herriko «ama» eta «aita»rena, gurasoena, guraso akademikoarena, egiten aritu behar duelako, bidea nondik joango den ikertu eta adierazten duelako, Psikologiak baduela ardatzaren eraikuntzan zer esana argi utzi nahi izan da. Herria eraikitze horretan, pertsonak behar duten tornulana edo norabide-aldaketan, iparra erakutsiko dio UZTAROk, «gurasotasun» horri OINARRI-lana deitu nahi zaiolarik: **ehun zenbaki eta hamaika ardatz**.

UEUk hor egon behar du, UZTARO bidegile gisa, eta ez bakarrik gizakiaren eraikitze berriarekin lan egiten, baita bere inguru digital eta emozioen lanketa aldarrikatu behar duen paradigma psikologikoa eraikitzen ere, jasangarria, ekologikoa —Psikologiaren ikuspuntutik aztertuta—, solidarioa eta osasuntsua izango den paradigma osatuz.

Amaitzeko, Eluska Aizpuruaren artikuluan aipatutakoa azpimarratuz, azken hamarkadetan, hainbat ikertzailek agresioaren alderdi negatiboak ekiditeko eta harremanak berrezartzeko hainbat jokaera-mekanismo badagoela frogatu dute primate-espezie ezberdinetan. Mekanismo horiek jokaera erasokorra harremanen berezko alderdi bat izatea ahalbidetzen dute eta hori testuinguru sozialetik kanpo aztertea zentzugabea litzateke. Agresioa gatazkak adierazi eta konpontzeko bide baten moduan ulertu beharra dago, etorkizunerako harremanetan eduki ditzaketen ondorioek kaltegarritik onuragarri izaterainoko *continuum* bat osatzen dutela onartu beharra dugu.

Lerro hauekin, UZTAROn Psikologia gaiak gizarterako ardatzak non jarri dituzten aipatu nahi izan da. Krisialdi zabal honetan gatazkak ez daitezten agresio bihurtu, baditugu baliabide propioak gure herri-eraikuntzan ondorio «kaltegarriak», ez gustuko egoerak bezala ulertuta, onuragarri bihurtzeko, eta, beraz, ibilbidearen oinarria identifikatu eta diseinatzeko ere, horregatik **ehun zenbaki eta hamaika ardatz UZTAROn hurrengo 100 zenbakien lana** izan dadila.

